



4. ARLOA: INTEGRAZIOA ETA GIZARTEKOITASUNA

Lerro honen harian, honako erronkei egin nahi diegu aurre:

Gasteiz, egoera sozial okerre aurre egiten dien hiria. Elkartasun-kontzientzia aintzat hartuta –nola herritarrengan oro har, hala gazteengan bereziki–, egoera sozial okerre aurre egingo dien gizarte-eredua bideratu nahi dugu, gazteei herritar oso eta eskubide eta betebeharretan berdin diren sentipena garatzeko aukera betea emango diena. Arrisku-jokamolde eta -egoerei aurre hartzen saiatuko gara, hala nola absentismoan, kontsumo txikietan, eta osasun- eta elkarbizitza-ohituretan, betiere alor horietan zeresana duten sail eta zerbitzuekin batera lan eginez.

Gasteiz, gazteentzako topagune eta elkarbizitzarako lekua. Jatorria, ideiak eta sinesmenak albora utzi, eta kultura eta hizkuntza izenburuko bi kontzeptuak garatzeko tresna hartuta, gazteei aberasgarri gerta dakien elkarbizitzara bideratzeko grina.

Sormena, elkartzea eta aisialdia abiapuntu, hiri-kultura sortzen duten gazteak... hartara, gazteak eurak hiriaren garapen-faktore bihurtuko dira, euren kultura mestizoa sortuko dute, aniztasun handi horren baitan nor bere etxeko ekarpenak eginez.

Prozesu hezgarriak gazteengan balizko egoera sozial makurrak prebenitzeko eta gainditzeko duten garrantzia aintzat hartuta, eskola-absentismoari aurre egin, eta formazioa eta prebentzioa sustatzearan alde lan egin behar da. Prebentzio-papera indartzeko, lan hau diziplina anitzeko bide koordinatuetan garatu behar da.

Aisialdiak, kirolak eta kulturak funtsezko papera jokatzen dute gazteen arteko elkarbizitzan; hor ikusten da zenbateraino den garrantzitsua alor horietan bizikidetzeta eta elkarren arteko harremana jorratzea. Jatorri desberdineko gazteen arteko harremanak etorkizuneko egoera desiragarriak (esaterako kulturarteko bizikidetzeta eta mestizai egoerak) aurreratzen dituen laborategia da.

Lonja eta etxabeekin loturiko gazte-aisialdiari dagokionez, zeharkako lana egingo dugu: auzi horrek gure hirian dituen dimentsioak aztertuz, berari ekiteko modua adostuz, gazteak segurtasun eta elkarbizitzaren oinarritzko jarrerak errespetatu behar diren garrantziaz kontzientziatuz, eta osasun ohiturak hobetzen lagunduz. Horretarako, garrantzitsua deritzogu alderdi positiboak azpimarratzea (gizartekoitasuna, topaleku izaera, erantzukizuna eta autoantolaketa), eta gatazkatsuenak hobetzen saiatzea (auzokideekiko bizikidetzeta, kontsumoa, higiene- eta segurtasun-egoera), gazteak beraiek inplikatzuz.